

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2022ko ekaina

2022ko ekainean Euskal AEko hotel-establezimenduetan erregistratutako ostatu-gauak ia bikoiztu egin dituzte 2021eko ekainekoak

2022ko ekainean izandako ostatu-gauen erdia baino gehiago atzerritarrenak izan dira

Eustaten datuen arabera, **2022ko ekainean** % 79,6 gehitu dira sarrerak Euskal AEko hotel-establezimenduetan eta % 97,9 ostatu-gauak urte artean.

Sarrerak, guztira, 309.162 izan dira; horren ondorioz, 612.621 ostatu-gau izan dira guztira. 2021eko ekainean sarrerak eta ostatu-gauak 172.095 eta 309.532 izan ziren, hurrenez hurren.

Atzerritar jatorriko pertsonen sarrerak guztizkoaren % 47,7 izan dira aurtengo ekainean, eta ostatu-gauak % 50,5. 2021eko ekainean, aldiz, atzerritar jatorrikoen sarrerak guztizkoaren % 23,9 izan ziren eta ostatu-gauak % 23,2.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia. Ekaina 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2022/06	m/m-12 (%)	2022/06	m/m-12 (%)	2022/06	2021/06
EUSKAL AE	309.162	79,6	612.621	97,9	1,98	1,80
Estatukoak	161.557	23,3	303.299	27,6	1,88	1,82
Atzerritarrak	147.605	259,1	309.322	331,0	2,10	1,75
Araba/Álava	39.164	55,9	74.626	57,9	1,91	1,88
Estatukoak	25.874	23,4	50.175	26,4	1,94	1,89
Atzerritarrak	13.290	220,1	24.451	223,2	1,84	1,82
Vitoria-Gasteiz	28.232	60,9	55.674	59,3	1,97	1,99
Bizkaia	141.709	110,3	273.984	125,8	1,93	1,80
Estatukoak	78.902	48,4	146.037	52,7	1,85	1,80
Atzerritarrak	62.807	342,5	127.947	397,8	2,04	1,81
Bilbao	94.283	110,9	183.523	135,0	1,95	1,75
Gipuzkoa	128.289	61,2	264.011	87,4	2,06	1,77
Estatukoak	56.781	-0,1	107.087	4,6	1,89	1,80
Atzerritarrak	71.508	214,1	156.924	307,6	2,19	1,69
Donostia / San Sebastian	77.917	62,8	172.479	97,2	2,21	1,83

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko ekaineko hotel-establezimenduetako sarreren % 12,7 Araban, % 45,8 Bizkaian eta % 41,5 Gipuzkoan izan dira. Ostatu-gauak dagokienez, Araban 74.626 izan dira, guztizkoaren % 12,2; Bizkaian 273.984, guztizkoaren % 44,7; eta Gipuzkoan 264.011, Euskal AE osoan erregistratutakoen % 43,1.

Aurreko urteko hil beraren aldean, sarrerak eta ostatu-gauak nabarmen igo dira hiru lurralde historikoetan, nahiz eta maila ezberdinean izan. Sarreraren kopuruari dagokionez, Bizkaian urte arteko % 110,3ko hazkundera izan da, Gipuzkoan % 61,2koa eta Araban % 55,9koa. Ostatu-gauen kasuan, urte arteko aldakuntzak hauek izan dira: % 125,8 Bizkaian, % 87,4 Gipuzkoan eta % 57,9 Araban.

Hiriburuen arabera, urte arteko datuei dagokionez, sarreraren kopuruak gora egin du Bilbon (% 110,9), Donostian (% 62,8) eta Gasteizen (% 60,9). Antzera, ostatu-gauen hazkundera % 135,0koa izan da Bilbon, % 97,2koa Donostian eta, azkenik, % 59,3koa Gasteizen.

2022ko ekaineko batez besteko egonaldia 1,98 egunekoa izan da Euskal AE osoan, 2021eko hil berean lortutakoa (1,80 egun) baino luzeagoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Ekaina 2022

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2022/06	p.p. *	2022/06	p.p. *	2022/06	m/m-12 (%)	2022/06	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	60,7	25,4	72,8	29,7	106,12	40,8	77,29	137,8
Araba/Álava	53,3	15,4	68,1	21,1	82,31	21,1	56,05	75,5
Vitoria-Gasteiz	52,9	14,5	70,5	21,2	66,77	13,8	47,05	62,8
Bizkaia	58,3	28,1	71,8	32,9	97,63	43,7	70,08	165,5
Bilbao	62,4	31,0	76,9	37,8	110,91	58,8	85,26	212,5
Gipuzkoa	66,1	25,8	75,7	29,0	122,86	44,4	92,97	134,2
Donostia / San Sebastian	73,9	30,8	81,5	34,0	156,65	54,3	127,71	164,4

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

2022ko ekaineko okupazio-mailak % 60,7ra iritsi dira Euskal AE osoan, plazaka neurtuta eta % 72,8ra gelaka neurtuta. 2021eko ekainaren aldean, igoerak ehuneko 25,4 eta 29,7 puntukoak dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtuta, Euskal AE osoan 106,12 eurokoa izan da 2022ko ekainean, eta % 40,8 igo da aurreko urtearen aldean. Lurralde historikoei dagokionez, balioak 122,86 eurokoak izan dira Gipuzkoan, 97,63 eurokoak Bizkaian eta 82,31 eurokoak Araban. Hiriburuka, aldeak handiagoak dira, ADR 156,65 eurotan kokatu baita Donostian, 110,91 eurotan Bilbon eta 66,77 eurotan Gasteizen.

RevPar, edo gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak, Euskal AEn 77,29 eurokoa izan da 2022ko ekainean, 2021eko ekainean lortutako 32,50 euroen oso gainetik eta aurreko urteko zifraren bikoitza baino gehiago.

Informazio-oharra

Ekaineko hotelen EThen estaldura % **86,3**koa izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

<https://www.eustat.eus/dgsServicesWar/MainId?gsservice=apps&gsrequest=getApplication&idapp=EUSTAT>

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62